

## HEGAZTI INTSEKTUJALE ETA HARRAPARI GAUTARRENTZAKO KABI KUTXEN LANTEGIA

HARITZALDE Naturzaleen Elkarte 2004ko urtean “**Hegazti intsektujale eta harrapari gautarrentzako kabi kutxen lantegia**” egin du.

Kabi kutxa lantegia gutxienez 5 urte aurrera begiratzen duen egitasmoa da. Ornitologiaren mundu erakargarria eta dinamikoa aitzakia gisa hartu nahi da talde-lan bat sortzeko eta nahi duen oro naturaren mundura hurbiltzeko eta ikasteko. Proiektu honen inguruan jende berria erakarri nahi da eta proiektuaren partaide bilakatu.

Helburua gure inguruetako hegaztiak ezagutzea da, haien habitatak, ohiturak, ondo bizitzeko baldintzak, espezie ezberdinen txioak bereiztu... eta aldi berean disfrutatu naturaz eta naturan, eraldatu gabe. Metodo honen bidez izadian bizi diren beste izaki batzuk ezagutzea eta errespetatzea errazagoa eta eraginkorragoa da. Lehenengo urrats hau betetzen denean, naturazaleen gaitasuna kualifikatu nahi da eta bere ezagumenak aprobetxatu beraiek beste lantegi motak prestatzeko, irtenaldiak eta ahal bada haien indarrak eta borondatea bildu geratzen zaizkigun berdegune eskasak eta eraldatuak kontserbatzeko eta hobetzeko. Bakarrik ezagumenetik eta errespetutik natura zain daiteke. Helburu hori lortzeko bide asko daude. Lantegi honen arduradunak kabi kutxa lantegikoa hautatu du eta kabi kutxen eraikitze, eskegitze eta mantentze lanetan 15 urte baino gehiagoko esperientzia partehartzaileei erakusten saiatu da, txoriei buruzko informazio kualifikatua eta eguneratua jasotzeko.

Lantegian 20 lagunek baino gehiagok parte hartu dute eta partaidetza ezinbestekoa izan da lantegiak aurrera egiteko.



HARITZALDEk eraikitako kabi kutxak

Hegaztiei buruzko diapositiba emanaldia, kabi kutxen eraikuntza, margotzea eta eskegitzea ardatz nagusiak izan dira. Ekitaldiok bukatu ondoren kabi kutxetako kumaldien datuak jaso dira negu honetan kaxak garbitzeari ekingo diogu.

Lantegia Pitillaseko padurara irtenaldia eta “Haizearen nomadak” filmaren proiektzioa bezalako ekitaldiekin osatu da.

Kabi kutxen erabileraren balorapena egiteko goiz bada ere, (lantegiak gutxienezko 5 urteko iraupena izango du eta memoria egiterakoan miaketa bat edo bi baino ez da egin), bai aldiz irizpide batzuk jorratzeko ikusitako emaitzek balio dezakete.

## **. BALORAPENA**

Sarreran azaldu den bezala, kabi kutxa proiektuaren helburu nagusia talde dinamiko eta entusiasta sortzea da, urte luzez ingurumen arloan lan egiten duena. Beraz, kabi kutxen lantegia stadium horretara iristeko ildo bat baino ez da izan.

### **. Balorapen soziala:**

Proiektuaren arduradunak kabi kutxa lantegiaren prestaketa eta garatze faseak iraun duen urtebete honetan halako ondorioak egiaztatu ditu:

- Ornitologiaren arloak naturarekin harremanak dituen eta ez dituen jendea biltzeko gaitasuna du.
- Oro har era batez edo bestez, 20 lagun inguruk parte hartu dute eta proiektu zabala da, hots , ez da beharrezkoa *HARITZALDE*koa izatea parte hartu ahal izateko.
- Proiektuaren berri prentsa, gutun eta telefonoren bidez eman da.
- Lantegia naturan eta izadian bertan lantzen da giro atsegina nagusia izanik.
- Jendeak aurrera egiten du ikasten badu, gustura badago eta bere partaidetza bultzatzen bada ia ezinbestekotzat izan arte, bere laguntzarik gabe talde-lanaren kontzeptua desagertzen baita. Honela, gonbidatua izatetik partaide izatera pasatzen da. Bakoitzaren laguntza garrantzitsua da, beraz.
- Ikasteko eta interesa pizteko ez da gauza bera denda batera joan eta kabi kutxa bat erosi edo bakoitzak bere kabi kutxa eraiki, margotu, eskegi eta garbi mantendu: metodo honen bidez ilusioa sortzen da eta baita jakin mina zein espeziek kutxa erabiliko duen jakiteko.
- Kabi kutxa erabilia bada espezie horren inguruko informazioa kabi kutxagileak eskuratu nahi du: nola du izena? Zerez elikatzen da? Zenbat arrautza erruten ditu? Zenbat egun kolkatua ematen ditu? Zer gertatzen da beste hegazti bat azaltzen bada eta kutxa okupatu nahi du jadanik umaldi bat barruan badago? Holako galderak eta askoz gehiago urtebete honen buruan suertatu dira, hasieratik eta bere garapenaren zehar.
- Proiektuaren garapenean presak baztertu dira eta gehienetan asteburuetan lantegia gauzatu da. Maiztasunez etorri direnek ornitologiaren munduan urrats handiak eman dituzte eta hegazti askoren izenak ikasi dituzte, egun gai dira laguntzarik gabe espezie asko bereizteko, eta baita txio batzuk zein espezietaoak diren jakiteko. Beste batzuk haratago iritsi dira eta txioak entzutearekin alarmazkoa den edo kantu tipikoa den dakite.
- Dirulaguntzaren diruarekin erositako gida liburuen eta teleskopioaren esker, zenbait kide Euskal Herriko padurak ezagutzen ari da eta aresti arte ezezagunak zitzaizkien parajeak eta hegazti espezieak edireten ari dira, Naturarekiko sentsibilizazioa, kontzientziazioa eta errespetua sortuz.
- Kabi kutxa lantegiko arduradunaren ustez, egun hainbat partaide gai dira holako lantegiak beraiek antolatzeke eta arrakastaz garatzeko.
- Beraz, kabi kutxa lantegiaren helburu garrantzitsu batzuk lortu egin dira: arruntak eta ugariak diren espezie batzuen aitzakia erabiliz (kaskabeltz handiak, amilotx urdinak...) eta haien bizilekura zuhertasun handiz hurbilduz, ornitologiaren inguruan jakin mina sortu da, urteetan luzatuko dena (lantegia 5 urtetarako da). Azpimarratu behar den beste atal bat partehartzaileena izan da, haien konstantzia eta denbora laburrean ikasitako hegaztien ezaugarriak eta bisitatutako parajeak... labur bilduz sentsibilizazioa landuz.

### . Kabi kutxen erabileraren balorapena (2004):

Kaskabeltz eta amilotxentzako kutxen ereduari erreparatuz gero, hauek erabilienak direla ikus dezakegu. Izan ere, 18 kutxetatik 15en umetu egin dute eta bestea atsedena egiteko erabili dute. Eredu hau, beraz oso eraginkorra da eta onarpen handia du txori batzuen artean. Espezieen erabiltzaileak aldiz, oso murrizak izan dira: 12 kutxa kaskabeltz handiek (*Parus major*) erabili dute eta 3 kutxa amilotx urdinek (*Parus caeruleus*).

Kaskabeltz handiek habitat eta landaredi mota askotan bizitzeko gaitasun handia izateaz gain, landaketa eta zonalde degradatuetan bizitzeko eta ugaltzeko ere gai dira. Guk kutxak eskegitzeko aukeratu ditugun landaketak eta baso guztiak Donostiako inguruetan daude non giza jarduera eta naturaren eraldaketa nabaria den. Beraz, kabi kutxetan espezie honen portzentaje handia ez da harritzekoa. Kabi kutxak eraikuntzen edo baserrien gertu zintzilikatu izan balira kaskabeltz handiek etxe-txolarreekin (*Passer domesticus*) edo landa txolarreekin (*Passer montanus*) tirabirak eta errietak izango zituzketen baina hipotesi hori gertatu ez denez nagusitu dira.

Kaskabeltz handien nagusitasunaren beste faktore bat haien indarra eta tamaina da. Parido askok kabi kutxak gustuko dituzte baina kaskabeltz handiak baina txikiagoa eta ahulagoak direnez sarritan kanporatuak izaten dira. Agian horregatik amilotx urdinek egindako erabilerara txikiagoa izan da. Kaskabeltz handiaren nagusitasuna hain nabaria den non Ametzagaña parkean apo-ontzarentzako (*Otus scops*), bete egin baitute.



Kaskabeltz handia (*Parus major*) kabi kutxak gehien okupatu dituen espeziea da. Argazkietan errunaldi eta kumaldi baten irudiak. Udan eta udazkenean aldiz, muxar grisek (*Glis glis*) kaskabeltzei erreleboa hartzen diete

Kabi kutxak pinu landaketetan (*Pinus radiata*) eskegi izan balira pinu kaskabeltzek (*Parus ater*) eta amilotx mottodunek (*Parus cristatus*) bezalako espezieek agian beteko zuketena. Dena den, kaskabeltz handiek pinuen landaketa artifizialetan ere bizi eta umetzen dutela kontutan izan behar da eta askotan barrunberik hoberenak hautatzen dituzte nahiz eta beste espezie batzuen arrautzak edo txitak dauden, beste espezie batzuen kalterako.

Pinu landaketetan kabi kutxarik eskegi ez bada aldiro pinudiak botatzen dituztelako da eta pinuekin batera beren adarretan dauden kutxak.

Amilotx urdinek (*Parus caeruleus*) hostozabaleko basoetan nagusiki bizi dira, nahiz eta batzutan pinu landaketetan ere bizi eta ugaltzen diren. Unez 3 kabi kutxa bete dituzte, pago, haritz kandudun eta haritz amerikarren artean daudenak. Amilotx urdinek ez dira eskasak baina maiz kaskabeltz handiarekin habitata konpartitzen dutenez ez zen aparta izango kutxa batzuetatik kanporatua izan izana eta zuhaitzetako arrakaletara edo lurreko zuloetara habia egitera kikilduta joan behar izatea.

Haatik, txantxangorri, buztanikara, eulitxori eta buztangorrientzako eraikitako eta eskegitako kutxek ez dute onarpenik izan. Liburu guztietan kabi kutxa hauen onarpena txorien artean txikiagoa dela jartzen badu ere, zintzilikatutako 6 kutxen artean bat ere ez dute umetzeko erabili, nahiz eta lo egiteko ez identifikatutako txori batzuek erabiltzen dituzten. Lantegiaren arduradunaren aburuz, aurrealdea irekita duten kutxek sarrera handiegia dute eta agian babes gutxi senti dezakete. Izan ere, aipatutako espezieek (buztanikarek ezik) arrakala naturaletan habia eraikitzen dutenean, azken hau estua izaten da.

Harraparienezako eskegitako kutxek onarpen ezberdina izan dute; apo-hontzarenak (*Otus scops*), eta mozoloarena (*Athene noctua*), ez dituzte ontzat hartu, agian zonalde horietan tamaina eta indar handiagoko beste harrapariaren bat jaun eta jabe delako. Esate baterako urubia arrunta (*Strix aluco*). Apo-hontzarienezako kabi kutxa bat kaskabeltz handiak okupatu duela bitxia eta ezustekoa izan da.

Hontza zuriarentzako (*Tyto alba*) jarritako 2 kutxak erabiliak izan dira. Batean ustezko urubi arruntak arrautza bat errun zuen baina zio ezezagunengandik ez zuen errunaldiarekin aurrera segi. Beste kutxan unez atsedena hartzeko erabiltzen dute eta egagropilak txikituta daudenez zein den maizterra ezin izan dugu jakin. Aurrerago beteko den lana da.



Nahiz eta oraindik harrapari gautarrek kabi kutxetan kumatu ez duten, urtean zehar atsedena hartzeko eta babesteko erabiltzen dituzte. Honen frogarik argienak agertzen diren egagropilak dira, esate baterako urubia arruntarentzako eskegitako kutxan hartutakoa

Urubi arrunta (*Strix aluco*) kabi kutxa erraldoia ez dute momentuz kumatzeko erabili. Kutxa hau berandu eskegi zen leku egokia aurkitzea oso zaila izan zelako eta lantegiaren arduradunaren ustez eskegi orduko urubiek bazuten beren txokoa hautatuta. Hala eta guztiz ere etorkizunean urubiek erabiliko dutelakoan gaude lekua lasaia, ezkutatua eta basoz inguratua dagoelako.

Donostia, 2004ko urria  
Joseba Gurutz de Vicente  
HARITZALDE Naturzaleen elkarteko kidea